

GASTEIZEN ETA ARABAN LANBIDE HEZIKETA BULTZATU ETA GARATZEKO PARTZUERGOA

Sozietatearen izena

Gasteiz eta Araban lanbide-heziketa bultzatu eta garatzeko partzuergoa.

IFK

P0100369H

Izaera

Partzuergoa.

Kontabilitate-araubidea

-

Aurrekontu-araubidea

-

Sorrera

1977ko abuztuan Arabako Foru Aldundiak emandako erabakiaren bitartez, Gasteizen eta Araban Lanbide Heziketa Bultzatu eta Garatzeko Partzuergoa eratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Gasteizko Udalak eta Laudioko Udalak osatua. Gainera, Vital Kutxa Banku Fundazioa erakunde laguntzailea da.

Gaur egun, Jesus Obrero Institutu Politeknikoa eta Institutu Politekiko Diozesiarra dira partzuergoaren jardun-eremuan integratutako lanbide-heziketako zentroak. Nolanahi ere, aipatzekoa da 1996ko ekitaldira arte, Laudioko lanbide-heziketako udal-eskolak ere finantziarioa jasotzen zuela itunpeko zentro gisa, eta, egun horretatik aurrera, itun osoko hezkuntza-erregimena duenez, dagoeneko ez duela partzuergoaren eskutik finantziatorik jasotzen. Gainera, horrek berekin ekarri zuen Laudioko Udalak funtsak ekartzeri uztea, Partzuergoko kide izaten jarraitzen badu ere.

Sail-atxikipena

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

EJSN

8559 Beste inon sailkatu gabeko hezkuntza.

Sozietatearen helburua

Partzuergoaren estatutu sozialen 3. artikulua arabera partzuergoak honako xede hauek dauzka:

- 1 Lanbide-heziketako irakaskuntzak bultzatzea.
- 2 Zentro integratuekin eta lanbide-heziketarekin zerikusia duten plan orokorrak eta jardun-programak idatzi eta onartzea, hizkuntza-espezialitate eta -eskakizun berrien haritik langileek dauzkaten prestakuntza-premia berriei erantzunez.
- 3 Arabako Lurralde Historikoan irakasten duten eta partzuergoan integratuta dauden lanbide-heziketako zentro pribatuen (edo toki-korporazio baten titulartasunekoen) jarduerak koordinatzea.


- 4 Lanbide-heziketako irakaskuntza-planetan bildu beharreko irakaskuntza eta espezialitate berriak zentroen artean banatzeko modua koordinatzea, eskualdeko industriaren premiei eta eskariari erantzunez eta integratutako zentro bakoitzaren instalazio, espezialitate eta baliabideak aintzat hartuz.
- 5 Lanbide-heziketako zentroen integratuen aurrekontuak eta haien likidazioa ezagutzea.
- 6 Zentro guztientzako aurrekontu bakarra idaztea eta onartzea, partzuergoak haien esku utzi beharreko laguntza eta diru-laguntza guztiak bilduta.
- 7 Zentro bakoitzari eman beharreko laguntza eta diru-laguntzak ebatzea.

Sailkapena kontabilitate nazionalen

Sailkatu gabe.

Erakundeek ekitaldian egindako ekarpenak

Gasteizko Udala	% 50,00
EAEko Administrazio Orokorra	% 30,00
Vital Kutxa Banku Fundazioa	% 20,00



Gobernu Batzordea

Presidenteak, presidenteordeak, zuzendaritza-batzordeak eta idazkari nagusiak osatzen dituzte partzuergoaren gobernu- eta administrazio-organoak. Gasteizko Udala. Estatutuen 10. artikuluan jaso denez, Zuzendaritza Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

- Partzuergoko presidentea
- Partzuergoko presidenteordea
- Laudioko Udalaren alkatea
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren hiru ordezkari.
- Gasteizko Udalaren hiru zinegotzi
- Laudioko Udalaren zinegotzi bat
- Vital Kutxako presidentea, edo hark eskuordetutako pertsona
- Vital Kutxako (Kutxabank) ordezkari bat
- Zentro integratu bakoitzaren zuzendariak
- Zentro integratu bakoitzaren ordezkari bat
- Zentro integratu bakoitzaren guraso-elkarteko ordezkari bat
- Gasteizko Elizbarrutiko Gotzaindegiko ordezkari bat
- Zuzendaritza Batzordeko idazkaria.

Ekitaldiko Aurrekontuen Likidazioa eta Urteko Kontuak

[Ekitaldiko urteko memoria.](#)

Webgunea

Ez dago eskura.